

## Sangha

Elkartea esan gura du. Jatorriz Indiako iparraldeko "errepubliketan" gobernu zera-matenen batzarrea adierazten zuen. Hortik hartu zuten budistek, beren erlijiozko \*elkartea adierazteko.

Funtsean \*monakoen (edo \*bhikkhu-en) toki bakoitzeko elkartea adierazten du; baina baita \*monastegi guztien arteko erakundea ere. Laikoaren erlijiozko biziera monastegiari loturik dago; \*laikoak haren babes izpirituala duen bitartean, berak monakoei azkurria eta mantenua eman behar die. \*Fede-aitormen moduko formula honekin atxekitzen zaio laikoa monastegiari: "Bada-ren babespean jartzen naiz, \*dharma-ren babespean jartzen naiz, sangha-ren babespean jartzen naiz".

Sangha izan daiteke gizakumeena nahiz emakumeena.

Ordenazio-erritoaren bidez sartzen da budista sangha-ra; \*ordenazioak, ordea, ez du apaiz-eskumenik ematen, monako-bizierarako sarrera besterik ez da. Bi ordenazio-modu daude: txikia (pabbya) \*nobizetza hastean, eta nagusia (samana) nobizea benetako monako bihurtzen duena. Dena dela, ordenazio nagusia ere ez da berez betirakoa. Badago eskomiku-moduko bat ere sangha-tik monakoren bat botatzeko, diziplinazko hutsegite jakin batzu direla tarteko. Diziplina-araudiak (pratimoksa izenekoak) gidatzen du elkartearen biziera.

Gautama Buda hil bezain laster, interpretazio- eta aginte-eztabaidak gertatu ziren sangha-n, haren ikasle eta jarraitzaileen artean. Horiek konponbideratzeko kontzilioa egin zuten, monakoen bizierarako arauak erabakitzeke eta finkatzeko.

Handik 100 bat urtera beste kontzilio batean gertatu zen sangha-ren zatiketa handia: \*Mahayana edo Ibilgailu handia eta \*Hinayana edo Ibilgailu txikia sortuz.

Estatu-mailako erakundea du batzutan sangha-k; eragin handia izan ohi du, hola-koetan, nazioko bizi sozialean eta politikoan, Tibet-en esate baterako.

Sangha-k ez du agintaritzaren zentralik; Gautama Buda bera da sangha osoaren "agintari" goren bakarra.

Ik. Budismoa; Monakotza; Elkartea.

Paulo Agirrebaltzategi

## Sanjoanak

Ik. Donibaneak.

## Sanjoan sua

Sin.: Afalostea

Euskal Herrian eta beste hainbat Herri-tan dagoen ohitura, S. Joan Bataiatzailearen jai-bezperan (Ekainaren 23an) suak piztekoa: etxe ondoan, plazan nahiz mendian.

Udaburuko erritoetakoa da. \*Eguzkiaren gurtzarekin du zerikusirik Sanjoan suak. S. Joan egunez, dantzan ateratzen omen da eguzkia, euskal sineste zaharren arabera.

Ik. Sua; Urtaro-erritoak.

## Sannyâzin

Sanskritozko hitza; aszeta adierazten du. \*Axrama edo biziera izpiritualeko etapatan laugarrenean dagoena eta azkena, non batez ere \*brahmaneari erabateko bakardadeko eta \*eskekotasuneko biziera proposatzen bait zioten, mundu honetatik noiz aterako zain egotearekin batera.

Sannyaza esaten da horrelakoaren biziera.

## Sanskritoa

Hizkuntza indoeuropar deritzatenetakoa da.

Hizkuntza sakratua hinduentzat, sanskritoz idatzi bait zituzten \*hinduismoaren liburu santuenak, \*Veda-tik hasita.

## Santokristoa

Ik. Gurutzefika.

## Santua (Saindua)

1. Sin.: Donea; Sakratua. Santua eta sakratua hitzak oso elkarloturik doaz eta sarritan nahasi egiten dira. Bestalde, erdaraz "sagrado/sacré" erabiltzen denean askotan euskaraz santu erabiltzen da. Horregatik, ik. Sakratua/Profanoa. Sakratuak ez du bertute moralaren adierarik; santuak, berriaz, sarritan bai, batez ere gizon-emakumei ematen zaienean deitura hori.

Jainkoaren izaera bera definitzen du santutasunak. Eta Harekiko hurbiltasunaren eta kideatasunaren arabera, santua deitura ematen zaie lagun batzuri, edo leku, gauza, giza jokabide, erakunde hainbati. Ere profanotik atera eta sakratuaren eremura \*sagarapen edo donespeneko erritoaren bidez aldatu denari dagokio bereziki santuaren edo donearen deitura.

2. San Paulok deitura horixe ematen die kristau guztiei, bataioaren bidez Jainkoaren graziak "santutu" dituelako. Orokorki, beraz, santuak dira Jainkoarekin adiskidetuak